

# 1. GAIA: PSIKOFARMAKOLOGIARI SARRERA

## 1. FARMAKODINAMIKA:

1. Kontzeptua: → Zer aztertzen du? FARMAKOEN EKINTZA-MEKANISMO BOKIMIKO EDO MOLEKULARRA. FARMAKOEN EFEKTUAK ORGANO APARATU ETA SISTEMETAN (JOKABIDE-EFEKTUAK).

- Kontzeptua → Farmakoak ekintza-tokira heltzen direnean eta beren ekintza-mekanismoaren ondorioz, hainbat efektu sortzen dituzte. Efektu horiek bai terapeutikoak bai sekundarioak izan daitezke, eta farmakoaren kontzentrazioaren arabera izango dira.
- Aztertzen duena, non eragiten duen organismoan(garunean). Eta gero hor, zein hartzaille motan eragin behar duen. Farmakoaren eta hartzailleen arteko ekintza. Hartzailleak ez dira bakarrik neurona postsinaptikoan daudenak.
- Beste mekanismo batzuk: entzimen bitartez. Aldaketa zelularrak ekarriko ditu, non honen ostean jokabidean eragina izango duen. Denak aldaketa molekularra eragingo du.(ona edo txarra)
- Farmako baten efektua ikusteko zer egiten duen eta nola aztertzea.
- Farmakoa: Makromolekula bat da efektu biologikoak sortzen dituen.

2. Ekintza farmakologikoaren dianak edo helburuak:

**-Hartzaile farmakologikoak:** → Makromolekula bat efektu biologikoak sor ditzakeena. Farmakoarekin elkartzeko gai diren zelulako molekulak. Loturaren ondorioz, zelularen oinarriko jardura aldatzeko gai diren molekulak. Entzimak, mintzetako hartzailleak, zelula barruko hartzailleak, tentsio-mendeko erreten ionikoak, roteina garraiatzaileak, beste proteina batzuk, ADNa.

- Farmako gehienek espezifikoki eragiten dute itu edo diana farmakologikoekin. Hala ere, kasu batzuetan, farmakoaren efektuak haren ezaugarri fisiko-kimikoen ondorio dira: osmolaritatearen aldaketak, gorputzeko likidoen pH-aren aldaketak, kelazioa.
- Bi baldintza:
  - Elkarrekintzak efektua sortu behar du, ez badu efekturik ez da kontsideratzen hartzaille farmakologiko bat dela. Beraz, ez litzateke farmakoen helburu bat izango.
  - Baldintza bat falta

**-Nerbio-sistemako hartzaille farmakologikoak:**

- ADIERA HERTSIAN: Neuronaren mintzean dauden seinaleztatze-molekulak (proteinak): loien garraioan parte hartzen duten proteinak. Gai endogenoetarako (neurotransmisoreetarako) hartzaileak (sinapsian). Loturaren ondorioz, neuronaren jarduera aldatuko da. Entzimank askotan neurotransmisoreak suntsitzen dituzte, birxurgatzea ekiditzen.
- ADIERA ZABALEAN: Neuronaren kanpoan edo barruan dauden beste molekula batzuk ere hartzaile izango dira. Adib: entzimak Adib: entzimak. Loturaren ondorioz, neuronaren jarduera aldatuko da.
- Psikofarmakoek neuronaren funtzionamendua aldatuz (maila sinaptikoan nagusiki) jokatzten dute. Hartarako, neuronako molekulekin elkartu beharko dute, eta, ondoren, haien jarduera aldatu.
- Hartzailearekin elkartzean, neurotransmisoreen efektu berdina sortzen du. Hartzailearekin lotzean, efektua sortuko da, non hau aktibitatearen aldaketa izango den.
- Entzimek, sintetizatu edo suntsitu egiten dute. Proteina garraiatzaileak, serotoninaren inhibitzaile selektiboak. loien barruko proteinak.

### 3. Hartzaile farmakologikoak:

- 1. Sinapsiaren fisiologia:** E-Potentziala bukaera axonikoara heltzen denean (Ca sartzen da), mintzaren polarizazioa aldatzen da, besikula sinaptikoek mintzarekin egiten dute bat, eta neurotransmisoreak askatzen dituzte tarte sinaptikora. Neurotransmisoreak, tarte sinaptikoa gainditu, eta neurona postsinaptikoan dauden hartzaileekin elkartzen dira. Neurotransmisoreak hartzaile espezifiko batzuk dituzte, non segun eta zein hartzaileekin elkartzen diren, efektu bat edo beste sortuko duten. Farmako ezberdinak hartzaile ezberdinetarako. Sinapsiak milaka ematen dira aldi berean. (neurona postniaptikoan sartuko dira neurotransmisoreak)
  - a. Neurotransmisoreen inaktibazioa: beste jarduera sinaptiko bat gerta dadin, aurreko sinapsia amaitu egin behar da. Horretarako, hainbat mekanismo daude:
    - i. *Inaktibazio entzimatikoa* → Entzima espezifikoek neurotransmisorea suntsitzen dute, bai tarte sinaptikoan bai egitura presinaptikoan.
    - ii. *Birxurgapena* → Neurona presinaptikoak edo gliako zelulek. Neurotransmisorea, tarte sinaptikotik, egitura presinaptikora itzultzen da, garraiorako proteinei esker, edo gliako zeluletara pasatzen da.
    - iii. *Barreiadura* → Neurotransmisoreak, tarte sinaptikotik, aldeatarantz barreiatzen dira. (odolaren bidez esaterako)

\*Begiratu taulan: Neurotransmisore motak.

## 2. Hartzaille sinaptikoak: Hartzaillearen arabera efektu bat edo beste. Farmako espezifikoak hartzaille jakin batekin elkartzen dira.

\*Entzimek neurotransmisoreak sintetizatzen dituzte besikuletan sartu aurretik, badira farmakoak entzima hauek suntsitzen dituztenak neurotransmisore gutxio eratzeko.

\*Heterohartzailleak (hartzaille postsinaptikoa) eta Autohartzailleak (hartzaille presinaptikoak) daude. Azken hauek askatutako neurotransmisoreak berriz hartzen dituzte neuronaren jariatapena jeisteko mezua bidaliz.

i. Kokapenaren arabera: → Bi motatakoak: autohartzailleak eta heterohartzailleak.

1. *Presinaptikoa:* autohartzailleak (neuronak berak jariatutako neurotransmisorearekin elkartzean hartzaillea, bi modutan: jariatapen maila eten, hau da kaltzioa sartzea etetea) edo heterohartzailleak (alboan dagoen beste neurona batenak elkar eragitean). Barnean terminalak eta somatodendritikoak daude.

2. *Postsinaptikoa:* heterohartzailleak → Beti delako beste neurona baten neurotransmisorea.

ii. Transdukzio (informazioa transmititzeko modua) mekanismoaren arabera: → Mintzan zeharkatzen dutenak ioiak dira, eta ez neurotransmisoreak.

1. *Ionotropikoak:* hartzaillea eta erreten ionikoa estruktura berdinekoak. Ioiek zeharkatzen dute mintza. Hartzaille bakoitza erreten ioniko batera lotuta, ioi positibo (kitzikatzaileak) zein negatiboak (inhibitzaileak) izan litezke. Elkartzean, zabaltzen dira erreten ionikoak eta ondoren, *sodioa* eta *kaltzioa* badira, positiboa izango da, kitzikatzailea. *Kloroa* (inhibitzailean, PPSI) sartzean *potasioa* atera, beraz, barruan negatiboa geratzen da, inhibitzailea. Bakarrik zabaldu egiten du erretena.

2. *Metabotropikoak:* 1.mota→ hartzaillea eta erreten ionikoa ezberdinduta, gainera, G proteinari lotua dago. Neurotransmisorea hartzaillearekin lotu, beraz, hartzaillearen forma aldatzen da, ondorioz G proteinarekin enkajatzten du eta hau aktibatu egiten da. Ondoren, erretena zabalduko da, edo itxi (biak egin ditzake). Hau da efekturik azkarrena, bigarren mezularirik gabe. 2.mota→ Bigarren mezulariarekin (entzimak sortzen duena), neurotransmisorea (1. mezularia) hartzaillearekin elkartu, G proteina aktibatu eta adenil ziklasa entzima aktibatu, non honek bigarren mezularia sintetizatuko duen (AMP-ziklikoa), ATP molekulatik abiatuta, hau izango delarik

erretena ireki edo itxiko duena eta **aldaketa zelularrak** (proteina kinasa-A aktibatzen du) ere eman ditzakeena. Aldaketa zelularrean, entzimak aktibatzen dira, non hauek proteina erregulatzailerak diren. Hauek aktibatzean, geneen aktibitatea erregulatzen du, ondorioz, proteina berrien sintesia ematen da (hartzaile eta entzima gehiago sortzen dira, erreziklatzeko modua). **G proteina EZ da bigarren mezularia**. Efectua beranduago sortzen dute ionotropikoen aldean (10 egunera izan daiteke). Iraupena ere handiagoa da hauetan.

+DENBORAREN IRUDIA → Irudian, neurotransmisoreetan gertatzen den erantzun postsinaptikoa denboraren arabera adierazten da. Kontuan izan behar da sinapsi batean hartzaile mota ezberdinak egon daitezkeela, bai ionotropikoak bai metabotropikoak. Goitik hasita, akziorik berehalakoena erreten ionikoetan edo bigarren mezulariaren sintesian gertatzen da. Gero, geneen RNA-rako transkripziora daramatzaten zelula barneko entzimak aktibatzen dira. Horrek RNA-aren proteinetara itzultzera darama. Besteak beste, funtzio entzimatikoa betetzen duten proteinak ageri dira. Entzimak aktibatu eta gero, beren funtzio entzimatiak egun asko iraun dezakete.

+Ionotropikoekin efektu azkarrago ematen da baina metabotropikoetan efektuak gehiago irauten du.

### iii. Inhibitzaile entzimatiak:

- Jarduera entzimatikoa molekula bat beste bat bihurtzean datza. Hots, substratua produktu bihurtzen da. Entzimak substratuak espezifikoki elkartu dezakeen leku aktiboa du. Substratua leku aktiboarekin elkartzen da, eta produktu bihurtzen da. Farmako batzuk entzima-inhibitzaileak dira:
  1. *Atzeraezinak* → Sustratua (neurotransmisorea) eta inhibitzaile entzimatikoa. Biak entzimarekin lotzen dira. Betirako da hau (entzima suizidatu egiten da). Hau, neurotransmisore mailak handitzeko egiten dira. Depresioa tratatzeko erabil daitezke, baina entzimak ez du sekula funtzionatuko, beraz, gehiegi igo daitezke serotonina eta noradrenalina mailak, izan ere, soberan dagoena ezin dute kendu entzima hauek ez dutelako funtzionatzen. Gaur egun antidepresibo inhibitzaile atzeraezinak ez dira erabiltzen ondorio toxikoak dituelako. Entzima-molekula berriak beharko dira aktibitate entzimatikoa lortzeko.
  2. *Atzerakorrak* → Funtzionamendua berdina da, entzimak neurotransmisoreen lekua okupatu eta hau desplazatu egiten da. Lotu da entzimarekin, ez dagoelako neurotransmisore nahikoa (inaktibatuta geratzen da tenporalki), beraz, neurotransmisore

nahikoa dagoenean berriro aktibatzen da inhibitzailea desplazatuz. Alzheimerrean, azetilkolina gutxi dago. Atzerakorra den inhibitzaileak azetilkolina suntsitzeun entzima inaktibatzen.

iv. Espezifikotasun farmakologikoaren arabera: Dopaminergikoak, Noradrenergikoak, Serotoninergerikoak, Kolinergikoak...

HASTA AQUÍ CLASES PERDIDAS!!!! ESTUDIAR BIEN!!!!

### 3. Farmako-hartzaileen elkarrekintza:

#### 1. Afinitatea eta jarduera intrintsekoak:

- **Afinitatea** farmako eta hartzailearen (hartzaile lekuarekin zerikusia) adostasun estrukturalaren menpe dago. Afinitatea edukitzea ez da nahikoa efektu farmakologikoa sortzeko. Horretarako, loturaren ondoren, hartzailea aktibatzen eta jarduera biologikoa sortzeko gai izan behar du farmakoak. Gaitasun horren neurria jarduera intrintsekoak ematen digu.
- Farmakoak hartzailearekin lotzeko duen gaitasuna.
- **Neurotransmisorea**, agonista osoa da. **Afinitate handiena** duena. Zenbat hartzaileekin lotzen den ikusi behar da afinitatea ikusteko. Askorekin = Afinitate handia.
- Afina dena hartzaile kopuru gehiago hartuko dituen izango da.
- Efektua sortu behar da gero, eta honek zein eragin daukan begiratu efektuaren tamaina begiratzen da. Gehieneko efektua sortzen badu 0-1 tartean izango da.
  - Jarduera intrintsekoa 0 = efekturik EZ
  - Jarduera intrintsekoa 1 = efektu gehien.
- *Jarduera intrintsekoa* → Farmako-hartzaile konplexuan eraginkortasun biologikoaren neurria (efektua). Efektuaren tamaina neurtzen da.
- Dosi-erantzun kurbak → Azetilkolinak dosi gutxiago behar du gehieneko efektua sortzeko, beraz, **afinitate gehiago** dauka. Propionikolinak (familia bereko farmakoa) dosi gehiago beharko du efektu berdina sortzeko, beraz, ez da afina. Teorikoki da hau, organismoan ez du zertan horrela izan behar. *Jarduera intrintsekoa* **berdina** da.

#### 2. Agonistak-antagonistak:


- **Agonistak** :

- Agonista osoa (erretena ireki): gehienezko efektua. Afinitate eta jarduera intrintseko maximoa. **1**
  - Agonista partzialak: erdia, jarduera intrintsekoa ez da **1** izango, **0,5** izango da. Agonista osoen antzeko ekintza, baina arinagoa.
  - Alderantzizkio agonista: agonista osoaren kontrakoa egiten du erretena ireki beharrean, itxi. **-1**
  - Alderantzizko agonista partzialak: farmakologikoki ez da erabiltzen, erdizka ixten du erretena, **-0,5**.
- **Antagonista** → Ez du ezer egiten (ez erretena itzi ez ireki) , blokeoa sortzen du. Agonistaren lana oztopatzen du, honi ez dio hartzailea hartzen uzten, **0**.  
+Funtzio bat du, esaterako heroina sobredosietan.  
+Farmako batzuk agonistak eta antagonistak izan daitezke, bi jarduerak egin ditzakete.  
+Badute hartzailearekin afinitatea baina ez dute jarduera intrintsekorik, agonistak oztopatu, blokeoa sortu.
  - **Agonista/Antagonistak**  
+Bi jarduerak dituen farmakoak (pertsonearen arabera)
  - Agonista partzialek, antagonista egiteko aukera ere badute. Batzuetan ez dio agonistari bere lana egiten uzten, oztopatu dezakete. Agonista partziala agonista- edo antagonista-funtzioetan dihardu, sinapsiko neurotransmisoreen kantitatearen arabera. Neurotransmisorearen aurrean, hala ere, antagonista gisa jokatzen du, neurotransmisoreari eta, beraz, agonismo osoari jokatzen uzten ez diolako.

**-Modulazaile alosterikoak**: erreten ionotropikoaren modulazio alosterikoa:

- Alosteriko = Beste toki batean egitea efektua, ez neurotransmisorean.
- Modulatzaile alosterikoa = Dauden efektuak modulatu dira, beren kabuz ez dute efekturik sortzen.
- Neurotransmisoreak bere lekua hartu eta bere efektua sortzen du (modulatzaile gabe).
- Modelatzailearekin, efektua handitu egiten da, non erretena zabaldu egiten duen ia guztiz. Ireki edo itxi egin dezakete, non ionotropikoetan normalean ireki egiten diren. Alkoholak egiten du hau normalean, GABA (inhibitu).
- Neurotransmisorea ez badago, ez dago efekturik. Modelatzailearen efektua egoteko honek aktibatu egon behar du.
- Positiboa → Agonistaren lana areagotzen du.
- Negatiboa → Fluoxetina sartzean, garraiatzaileak inhibitzen dira serotonina gehiago nahi delako (birkaptazioa oztopatuz). Kimikoki antagonista da, baina lortzen duena agonista funtzioa da, serotonina areagotzen duelako. ( serotonina gehio geratzen da tarte neuronalean, hartzaile postsinaptikoekin elkartzeko).
- MARRAZKIA → Ezkerrean, hartzailea ageri da, neurotransmisorerako lotura-tokiarekin eta molekula modulatzaileareko bigarren lotura-toki batekin. Neurotransmisoreak, agonista osoak, bere lotura-tokiarekin elkartzen bada, erreten ionikoa irekitzen du, irudiaren erdialdean erakusten den bezala. Modulatzaile alosterikoa bigarren lotura-tokiarekin

elkartzen bada neurotransmisorea berearekin elkartuta egonik gabe, horrek ez du efektu berezirik. Baina, neurotransmisorea jada bere lotura-tokiarekin elkartuta badago, modulatuzaile alosterikoa gehitzeak erreten ionikoak gehiago ireki daitezten eragiten du, agonista osoak bakarrik eragin dezakeen baino gehiago, eskuinean erakusten den bezala.



Erreten ionotropikoaren modulazio alosterikoa

**-Kimikoa vs funtzionala:** → Bukaerako efektua begiratu behar da jakiteko agonista edo antagonista den.

AGONISTAK/ANTAGONISTAK KIMIKOAK versus FUNTZIONALAK	
<p><b>Agonista kimikoa (osoa)</b></p> <p>Hartzailean neurotransmisorearen jarduera bera duen substantzia</p>	<p><b>Agonista funtzionala</b></p> <p>Funtzio jakin batean neurotransmisorearen efektu bera duen substantzia. Hainbat lekutan joka dezake.</p>
<p><b>Antagonista kimikoa (osoa)</b></p> <p>Hartzailean neurotransmisorearen ekintza blokeatzen duen substantzia</p> <p>Ez du jarduerarik blokeatzen duen elementuaren gainean.</p>	<p><b>Antagonista funtzionala</b></p> <p>Funtzio jakin batean neurotransmisorearen kontrako efektuak dituen substantzia. Hainbat lekutan joka dezake.</p>

AGONISTAK/ANTAGONISTAK KIMIKOAK versus FUNTZIONALAK	
<p>Agonista kimikoa</p> <p>Hartzaile postsinaptikoa D2</p>	<p>Agonista funtzionala</p> <p>Jarduera motorra areagotu</p>
<p>Agonista kimikoa</p> <p>Hartzaile presinaptikoa D2</p>	<p>Antagonista funtzionala</p> <p>Jarduera motorra gutxitu</p>

- **BIGARREN ESKEMA** → Agonismo/antagonismo kimikoaren eta agonismo/antagonismo funtzionalaren arteko desberdintasunaren adibidea irudikatzen da eskema horretan. D2 hartzaile dopaminergikoen agonista kimikoak hartzaile postsinaptiko eta presinaptikoetan joka dezake. Lehen kasuan, transmisio dopaminergikoa estimulatzen du, eta aktibatze motor handiagoa eragiten du; bigarren kasuan, transmisio dopaminergikoa eragozten du, eta, hala, aktibitate motorra gutxitzea eragiten du.
- Agonista kimikoa → **agonista funtzionala** da, *hartzaile postsinaptikora* lotzen denean eta hau kitzikatzen denean. **Antagonista funtzionala** izango da, presinaptikoan lotzen denean (kitzikatzen du) *autohartzaileetara* lotzen delako funtzionamendua etengo da, beraz, neurotransmisoreen jariatzea etengo edo gutxituko da.
- Antagonista kimikoa → antagonista funtzionala da, hartzaile postsinaptikora lotzen denean inhibitu egingo da. *Agonista funtzionala izango da...*

**-Hartzaileen erregulazioa:**

- **Desentsibilizazioa** → *Ez dago efekturik edo gutxitua* dago. Neuronek ez dute erantzuten. Gehiegizko estimulazio baten ondorioa da. Gehiegizko estimulazioa dagoenean, neuronek badauzkate mekanismoak gehiegizko aktibitate hori gutxitzeko. Farmako agonisten ekintzagatik gerta daiteke. Hartzaille kopurua (behera) edo konformazioa aldatzen da. Beraz, bi fenomeno ikusten dira:
  - Epe motzean: hartzaille postsinaptikoen konformazioa aldatzen da, forma aldatzen da, beraz neurotransmironek ezin dute berarekin lotu, hau epe motzera izaten da, izan ere, gero bere onera itzultzen dira. Modu bat da neurotransmisoreak gutxitzeko. ADB: tolerantzia
  - Epe luzean: batzuetan, nahiz eta konformazio hori aldatzen den, neurotransmisoreak ez dira tartetatik ibiltzen, beraz, hartzaille kopurua gutxitu egin behar da. → Beranzko erregulazioa
    - Adib: Kokaina (kontsumoa jarraitua denean), efektu bera egiteko gehio kontsumitu behar da.
- **Hipersentsibilizazioa** → Goranzko erregulazioa eman eta gero → Ohiko erantzuna gehiegizkoa denean. Estimulazio gutxituaren ondorioz ematen da. **Ez dago konformazio aldaketarik**. Gertatzen da, estimulazio gutxi dagoenean, neurona postsinaptikoak hartzaille gehiago sortzen ditu ahalik eta neurotransmisore gehiagorekin lotzeko. Farmako antagonisten ekintzagatik gertatu daiteke. Hartzaille kopurua (gora) edo konformazioa aldatzen da.
  - Adib: Antipsikotiko klasikoekin.
- **Hartzaillearen bizitza zikloa**(diapoko irudia) → Hartzailleak berritzen, aldatzen eta suntsitzen joaten dira, hau da, berregituratzen joaten dira, non egoera normalean oreka bat ematen den prozesu horretan. Nukleotik RNA, erribosomakin hartzailleak sortzen dira, erretikulu endoplasmatikokoan. Beren funtzioa egon ostean suntsitu lisosoma (entzima( bidez).
  - **Beheranzko erregulazioa**: hartzaille gehiago suntsitu berriak sortu baino. Sintesia mantsoago, azkartasun berdinarekin suntsitzen dira. Hartzaille kopurua jaisteko modu bat da. Prozesua desorekatzen da eta horrela lortzen da. Teorian, neurotransmisioaren sentsibilitatea txikiagotu ahal izango luke (desentsibilizazioa). Bestalde, hartzailleak, zenbait baldintzatan, gehiegi ere ekoitz daitezke. Hartzaillearen gehiegizko sintesiak edo ekoizpenak, neurotransmisioko sentikortasuna areagotzeaz gain, gaixotasuna ere sor dezake.
  - **Goranzko erregulazioa**: hipersentsibilizazioa honen ondorioz sortzen da. Hartzaille berrien sintesia oso azkarra da, beraz, normala dena baino askoz ere hartzaille gehiago ditugu. Gertatzen dena, neurotransmisore mailak igotzean, hartzaille eta neurotransmisorearen lotutaren erantzuna gehiegizkoa izatea, beraz, honek hipersentsibilizazioa sortzen du. Hau gertatzean farmakoaren dosia gutxitu behar da. Antipsikotikoak erabiltzean gertatzen da. Hipersentsibilitate hori sortzen dena, irrebersiblea da, nahiz eta farmakoa kendu.




- Adib: Eskizofrenian, hipotesi dopaminergikoa.
  - Dopaminaren hiperaktibitatearen (bide1) ondorioz sintomak agertu. Antipsikotikoen bidez hartzaileak gutxitu. Baina zuzenak ez direnez, efektu sekundarioak (bide2) (mugimenduen alterazioa). Hipersensibilitatea gertatzen da 20 urte tratamenduarekin dagonean, irrebersiblea da.
- Farmakoen ekintza mekanismo batzuk:
  - Neurotransmisorearen sintesia areagotu → Prekurtsoreen kantitatea aregotuz. Dopaminaren adibidean, L-DOPA ematen da. L-DOPAK, dopamina sorraraztea eragingo du.
  - Barrera entzefalikoa pasatzeko neurotransmisorea bera eman beharrean, horren prekurtsorea emango da.

### 3. Farmako-hartzaileen elkarrekintza:

#### -Potentzia eta eraginkortasuna (efikazia):

- **Potentzia** → Ahalik eta dosi gutxien erabili efektu maximoa lortzeko. Gero eta dosi txikiagoa, potenteagoa da farmako hori. Efektu bat lortzeko (muturrekoa) behar den kantitatea.
- **Eraginkortasuna** → **Efikaza** izango da, nahi dugun efektua sortzen duenean. **Efizientea** izango da, eragina sortu denean baina ez guk nahi genuena. Erantzuna gero eta handiagoa izan, orduan eta eraginkorragoa izango da.



- **KURBA POTENTZIA (GRAFIKOA):** A da potenteena, dosi gutxiago behar duelako, beraz, hau erabiliko da. Bestalde, A farmakoa da afinena, efektu hori lortzeko behar dituen hartzaile kopuruarekin dosi gutxietan lortzen delako.


- **KURBA ERAGINKORTASUNA (GRAFIKOA):** nahiz eta dosia handitu, efektu maximoa ez da igaroko, beraz, efektu hori lortu nahi da.

- **DOSI-ERANTZUN KURBAK (GRAFIKOA):** B-C, dosi berdina baina eraginkortasun ezberdinekoak dira, hau da, B eraginkorragoa da. A da potenteena eta eraginkorrena.

- Nahi dugun efektua lortu nahi da ahalik eta dosi gutxienarekin.

#### -Indize terapeutikoa:

- Farmakoaren segurtasun neurria da. Neurri babeslea.
- Hau zenbat eta handio izan, tarte gehiago edo aukera gehiago dago efektu toxiko bat eman aurretik, beraz seguruagoa da.
- Ze tarte dagoen desiratutako efektutik, efektu toxikora.



● **GRAFIKOA:** A eta B farmako berdina dira. Ikusi nahi da farmakoaren segurtasun neurria. A (kurba terapeutikoa) B (kurba toxikoa). Kalkulatzen da efektu terapeutikoa, kalkulatu zenbat dosi behar den %50eko biztanlerian efektua egiteko. Kasu honetan, 10mg. %50ean efektu toxikoa lortzeko, berriz, 100mg-rekin emango da. Zatiketa bat egiten da hauen artean. Tarteko zenbakia gero eta handiagoa izan, farmakoa seguruagoa da (0-100 izango da tartea). Efektu toxiko eta eraginkorraren artean 10 eko tarte dago. Kasu honetan normalean 50

emango da, baina 60 etik gora ezingo litzateke, Hobeto izango zan norbaitei 40 kin ite badio efektua.

-Efektu toxikoa: kaltegarria edo aurkakoa

- **Dosiaren mendekoak:**
  - **Albo-efektuak:** efektu kolateralak. Inherentea da, efektu terapeutikoekin batera beti dator. Ekintza farmakologikoaren efektu zuzena izango litzateke. ADB: Antipsikotikoen hipersentsibilizazioa
  - **Bigarren mailako efektua:** farmako horrek egiten duenaren arabera beste zerbait sortu daiteke. Farmakoak sortzen duenaren ondorioz sortzen dira. ADB: Diuretikoak (pisa iteko) asko hartzen badira, presioa jaitsi egiten da eta hipotentsioa ekar lezake.
- **Dosiarekin loturarik ez: → Farmakoak ez du sortzen.**
  - **Efektu alergikoak** → Inmunitate-sistema aktibatzearen ondorio da.
  - **Efektu idiosinkratikoak:** norberarenak direnak. Norberaren aldakortasunaren mende dago.


-Elkarrekintza farmakologikoak:

Bi edo farmako gehiago ematen direnean, haietako baten efektua edo guztiena aldatzen denean. Interakzio farmakozinetikoak ere gerta daitezke.

- Farmakoaren efektua handitzea (efektu terapeutikoak).
- Efektu toxikoa lortzea ( elkarrekintza farmakozinetikos, aspirina eta antikoagulantiakin, biak batera hemorragiak)
- Aurkako efektua → Lortu nahi dugunaren kontrakoa lortzea
  
- FARMAKOZINETIKOAK → Prozesu zinetikoen baten gainean gertatzen direnak dira hau da, ekintza-tokirainoko bidean: xurgatzean, banatzean, metabolizatzean edo ezabatzean. Farmakoaren maila plasmatikoa edo bioerabilgarritasuna aldatzen da (gora edo behera).
  
- FARMAKODINAMIKOAK → Hartzaillean (ekintza-tokian), hartzailleak aktibatuta ondorengo prozesuetan edo aurkako efektua duten sistema fisiologikoetan gertatzen dira. Farmakoaren ekintza farmakologikoa aldatzen da (gora edo behera).

■ Ondorioak (AZTERKETAN):


ak



:  
 $ua = A \text{ efektua} + B \text{ efektua}$

**ZEA (SINERGISMOA)**  
 $ua > A \text{ efektua} + B \text{ efektua}$

**NISMOA:**  
 $ua < A \text{ efektua} + B \text{ efektua}$



- Farmako batek sortzen duen efektua eta beste farmako batena batzen dira. Efektua bien batuketa. A+B

- Batuketak batzuetan farmako baten edo biren efektua areagotzen du, beraz areagotzea (edo sinergismoa) izango litzateke. Adibidez, hormonak.

- Antagonismoa, farmako baten edo biren efektuak gutxitzen direnean.

- Agonista partzialaren kasua.

**2. FARMAKOZINETIKA:**

1. FARMAKOZINETIKAREN KONTZEPTUA:

- Farmakozinetikak farmakoak organismoan nola pasatzen ikertzen du, denboraren eta emandako kantitatearen arabera. Azken finean, farmakoak nola sartzen diren (xurgatzea), nola mugitzen diren eta nora doazen (banaketa) eta, azkenik, nola irteten diren (ezabapena) aztertzen du. **Farmako batek ekintza toki desberdinetan duen kontzentrazio determinatzen dute prozesuak**


- Substantzia ezberdinen arteko interakzio ezberdinak ere aztertzen dira.
- Guztia hau ikertu behar da jakiteko noiz hartu hurrengo dosia, jakin behar dugu zenbat dagoen erabilgarri odolean, nola den egokiena ematea eta noiz ezabatzen den

## 2. XURGATZEA (nola sartzen da odol sistemara?):

- Pastila hartu, urdailan apurtu eta disolbatu, esteetatik gibelera pasa, non portzentaia suntsitzen den, eta soberan dagoena odolera pasatzen da. Xurgapen gehiena esteetan ematen da.
  - Garraio mekanismoak erabiltzen dituzte mintzetatik igarotzeko (lehenengo oztopoa).
  - Ez da berdina pastila edo iada txikitutakoa izatea. (Ad) Ibuprofeno pastilan edo espidifen.
- Farmakoa kanpotik odolera igarotzea. Farmakoak ez dira berdin xurgatzea. Batzuk ez badira ondo xurgatzen, beste modu batean sartu beharko genuke. (Ad) Odolera sartuz zuzenean

-Xurgatzea mugatzen duten faktoreak:

- **Zelularen garraio-sistemak:**



- **Barreiadura** egiten da, pasiboa da, ez dagoelako gastu energetikorik. Molekula oso txikiak dira igarotzen direnak.

- **Lagundutako barreiadura:** gradientearen alde, handiegiak, eta orduan laguntza,edo bide bat dut. (L-DOPAk adibidez hau erabiltzen du)

- Izaera lipidikoak diren molekulak dira hobereak mintza zeharkatzeko. Normalean farmakoak ez dira molekula txikiak, beraz, lipidikoak izatea interesatzen zaigu. Ez badago garraiatzaile nahikorik, farmakoa ez da xurgatuko. Izaera lipidikoa dutenak, mintzarekin fusionatu eta pasatu egiten dira.

- **Hartzaileek gidaturiko endozitosia:** intsulinak zelulak sartzeko hartzaileekin lotu, endozitosiaren bitartez barrura sartzen da, besikula puskatu eta bere efektua egingo du. Intsulinak ezin du hartzailerik gabe hau egin. Ikusi behar da farmako bakoitzak zein garraio bide erabili behar duen, hartzaileen arabera.

- **Farmakoen ezaugarriak:**


- **Kontzentrazioa** → Handiak direnean, farmakoa barruan ez dagoenean, azkarrago pasatzen da. Gradientearen kontzentrazioa berdintzean, xurgapena jaisten joaten da. Hasieran oso azkar pasatzen da baina berdintzen denean farmakoa mantxoago joango da. Radiantaren alde joango da. Baina gero eta radiantea berdintzen doan einean mantsoagoa joango da.

- **Tamaina** → Molekula gero eta txikiagoa, azkarrago igaroko dute mintza. Barreiadura azkarrago emango da. Molekula handiak garraiatzaileak behar dute. Eta hauek azkarrago xurgatuko dituzte garraiatzaile hori aktiboa baldin bada.
- **Lipodisolbagarritasuna** → Lipidikoak direnak ez dute arazorik mintza igarotzeko. Gainera, ez dute garraio sistemarik behar, beraz, ez dute limitazio hori. Farmako gehiago xurgatuko da. Farmakoak continnum batean daude, hidrodisolbagarriak (oso maila txikian, bestela ez litzateke urdailean disolbatuko)) → lipodisolbagarriak. HOBEKIEN XURGATZEN DIRENAK.
- **Ionizazio maila** → Elektrikoki kargatuak dauden edo ez. Ionizaturik EZ daudenak, errazago igaroko dira. Hau ere continuum bat da. Ionizatuak igarotzea zailagoa izango da. Egoera neutro batean ionizatua ez daudenak bakarrik pasatuko dira. Urdailaren PH-aren arabera, azidoa bada ionizatutako kantitate gutxi batek ere psatuko dira.
- Garraio sistema → Zeluletan daudenak.
- **Emateko bideak:**
  - **Enterala**(ahozkoa) → Sistema digestibotik pasatzen den bidea. (KOMENIGARRIENA)
    - Abantailak:
      - Erraza eta eroso. Pazienteak bere kabuz hartzen du, arazoa izan daiteke.
      - Merkeagoa da.
      - Emateko formetako aukera: segun eta zer daukagun gustokoago (sobre edo pastilla, adibidez).
    - Desabantailak:
      - Dosi handitan disolbagarritasun txikia.(Parte handi bat txunditu egiten delako)
      - *Metabolismoaren lehen txandako efektua*: hartzen den farmakoen portzentai handi bat suntsitua izango da eta ezingo da erabili, beraz, gehiago hartu beharko da.
      - Urdailean dagoen janariarekin interakzioa: bi modutara:
        - Komenigarriena dena ahalik eta azkarren pasatzera esteetara, urdailetik ahalik eta azkarren kentzea. Beraz, ez jatea komeni da.Baina kaltea egiten dizu.
        - Janariarekin mantxoagoa igarotzen da farmakoa, ez gainera, entzima batzuk daudenez suntsitu egiten dute portzentai handia, horrela gutxiago pasatuz odolera. Efektua egiteko

denbora gehiago pasatzen da eta gainera, dosi txikiagoa igarotzen da. Adibidez, intsulina ezin da ahoz hartu, denborarekin suntsitu egiten delako gibelean.

- Komenigarriena beraz, azkar digenitzen den batekin digeritzea. Efectu negatiboak egon daitezke eta kasu horietan beste modu batera eman behar izaten da. Hala ere, ahal baldin bada printzipioz ahoz eman behar da.
- Era solidoan ezin da eman konorte gabeko pertsoneri.

o bideak: **ENTERALA** (ah) Lehen txandako efektua



o *Lehen txandako efektua*  
 → Irentsi, urdailera joan (disolbatu) eta mintza pasa eta esteetara iristen da farmakoa. Farmakoa, gibelera joaten da, non honek entzimak dituen (portzentai bat suntsituz, farmakoa eraldatu) eta metabolizatu daiteke, aktibo zein inaktibo. Beraz, parte bat suntsitu eta metabolito bat bihurtzen da (ez du efekturik egingo). Oso hidrosolubleak dira eta ionizatuak dira. Gibelak, bilisaren bitartez ere zuzenean bota egiten du farmakoa, alegia parte bat ez da odolera pasatzen; hau da, parte bat pasako da, beste bat eraldatua izango da eta beste bat bota egingo da (kaka eta pixa). Bihotzera joaten da, biriketara eta gero banaketa hasiko da.

- **Parentala** → Injekzioak. Ahozkoak ez diren bideak. Garraiatzailea (jeringilla) eta garraio giroa (zerekin disolbatzen den farmakoa → Suero fisiologikoa, antipsikotikoetan olio moduko bat).

■ **Bena barnekoa:**

- Abantailak: erantzun bizkorra du eta lehen txandako efektua saihesten du.
- Desabantailak: hala ere, bizkortasun horrek baditu bere desabantailak, hau da, ekintza oso modu bestialean ematen da. Eta esterilizazioa garai batean.

■ **Muskulu barnekoa:**

- Abantailak: lehen txandako efekturik ez. Xurgatzea motela da, baina dena ematen da. Muskulan dago eta ez da dena batera pasako odolera, mantsoago igaroko da. **Depot injekzioak:** suspentsio oliotsuko farmako baten muskulu barneko



injekzioari esker, farmakoaren askatze graduala gerta daiteke, hainbat egunetan zehar. Prestakin horri esker, hainbat egunetako edo astetako medikazioa dosi bakarrean har daiteke; hauek erabiltzen dira pazienteak txintxoak ez direnean medizinak hartzeko. Hartzeko moduarekin jokatu daiteke.

- Desabantailak: mina ematen du, narriadurak...
- **Larruazalpekoa:**
  - Abantailak: lehen txandako efektua saihesten du. Xurgatze motela baina osoa.
  - Desabantailak: narriadura eman daiteke eta mingarria.
- **Peritoneo barnekoa:** gehienetan animalietan.

### farmakoaren odol-mailak denboraren ezaugarriak emateko bidearen arabera



arabera dena ez erabiltzea.

○ **Emateko bideak** (GRAFIKOA) → Bena barnekoak emango du kantitate gehiena. Lauak dosi berdina badute, ahozko bidea aukeratuko genuke emateko. Izan ere, denbora gehiagoan irauten du efektuak.

○ **Bioerabilgarritasuna** → Erabilgarria da odolera iristen den kantitatea, hau da, erabili dezakeena, gehiago ez. Hala ere, banaketaren

- Kantitatearen arabera → Bena barrutik dena erabilgarri; ahoz, ez dakigu. Gero eta dosi gutxiago hobeto erabiltzea. Emandako dosiaren zein ehuneko iristen den odolera. Neurria: % 0 - % 100.
  - Bena barneko ematearen kasuan % 100.
  - Ahozko ematearen kasuan: zirkulazio sistemikora iritsi aurretik, gibeletik pasatzen da, eta ehuneko bat metabolizatu egingo da.
- Abiadura → Zenbat denbora pasatu behar den erabilgarri izateko. Horrela estimatuko da efektua noiz hasiko den ikustea.
- **GRAFIKOA** → Bena barnekoak abiadura handiagoa kontzentrazio maximoa lortzeko, ahozkoak denbora gehiago pasatzen du. Egokiena, B da (ahozkoa), izan ere gehiago irauten du efektu terapeutikoak. Hoberena, ahalik eta

denbora gehien ematea efektu terapeutikoa. Bena-bidekoa (A) azkar ematen da efektua, baina 2 orduz dago efektu toxikoekin eta 4 ordu efektu terapeutikoekin baina tarteka. Segun zertarako nahi dugun, bata edo bestea erabili beharko genuke.

- GRAFIKO TXIKIAK → Konprimidoak hobeak dira, denbora gehiagoan ematen duelako efektua. Grafiko horretan dauden farmako guztiak ahozko bidezkoak dira.

- Beste bide batzuk: → Ez dute sistema digestiboa erabiltzen. GAUR EGUN PARENTERALAK KONTSIDERATZEN DIRA.

- Arnasa: anestesiak
- Mihatzeak: intsulina
- Ondoestekoa, rektala.

### 3. BANAKETA:

AKO KAPITAREAN ZAU DAT BAKATIK NEIQUKO O LO.

**ETA ALDATZEN DUTEN FAKTOREAK**  
 a baldintzatzen zuten berdinak.  
 tiko baskularizazioa  
 , proteinekiko lotura  
 a).  
 -bolumena.  
 ta.  
 xua, etab.



- Odol zirkulaziotik garunera iritsi eta hartzaileekin lotu efektua sortzeko. Farmakoa banatzen joaten da. Nahiz eta erabilgarri egon irentsitako %80a, ez du esan nahi dena erabiliko den.

### BANAKETA ALDATZE DUTEN FAKTOREAK:



- Xurgatzea baldintzatzen

zuten berdinak.

- **Organoetako baskularizazioa** → Garunak ez dauka arazorik, beraz, gero eta odol maila gehiago pasa organotik, gero eta farmako gehiago banatuko da. Garrantzitsua da.
- **Plasmako proteinekiko lotura** (albumina, marrazkian horia den borobiltzoa) → Farmakoa odolera iristean, ez dago dena libre. Farmakoa garraiatua ere izan behar da, beraz, plasma proteinak dauzkagu. Banaketarako beharrezkoa da hau. Loturak puskatzen joaten dira, non efektua sortuko duen. Lotura dagoenean ez dago aktibo, askatutakoan ematen du efektua. Ezin da eliminatua izan ere ez, beraz, erreserbak izan daitezke. Odolean libre dagoena banatuko da, lotutakoa ez.



- **Banaketa bolumena** → Zenbat bolumen banatzen den, ez da dena banatzen. Interesatzen zaigu, banaketa bolumena handia izaten, ahalik eta gehien banatzea alegia.
- **Ehun mota** → Hartzailearen eta likidoaren arabera. beren izaeratik, badaude ehunak farmakoak denbora gehiagoz atxikitzen dituztenak. Adibidez, ehun adiposoak esteroide-izaerako anestesikoak atxikitzen ditu. Garrantzitsua.
- **Adina eta sexua** → Adinak aurrera egin ahala, bolumen gutxiago dugu farmakoa hartzeko. Emakumeek ere likido gutxiago. Farmako bolumen gehiena banatu behar da.
- **HESI HEMATOENTZEFALIKOA**: → Garunaren kasuan.
  - Hesi hematoentzefalikoa farmakoa edo hainbat substantzia garunera iristea galarazten duen iragazki eraginkorra da; hala ere, badaude hura gainditzea errazten duten estrategiak. Adibidez, hesia gainditzea posible egiten duten ezaugarri fisiko-kimikoak (lipodisolbagarritasuna, garraio aktiboarekiko afinitatea, eta abar) dituzten farmakoak diseinatzea.
  - Odol-hodien eta likido zefalorrakideoaren artean kokaturik dauden mintzen hesia, bakterioak eta toxinak iragaitea galarazten duena.
  - Ezaugarriak: mintzak dira, non odol kapilar bat eta astrozitoak dituzten itsatsiak. Bakterioak eta toxinak iragaitea galarazten du.
  - Hesi hematoentzefalikoa gainditzeko hainbat bide:
    - Prekurtsoren administrazioa (L-DOPA)
    - Likido entzefalorrakideoan sartu.
    - Permea bilaketa maila handitzea.
    - Hesiaren ezaugarriak kontutan izan, drogaren diseinua egin.




- *MARRAZKIAK* → *Odol hodi normaleetatik, farmakoak ondo igarotzen dira, baina NSZ-ko odol hodietatik ez dira berdin igarotzen.*

#### 4. EZABAKETA:

- Gorputz kanporaketa. Farmakoa ezabatzeko, aurretik, eraldatu, metabolismoan gertatzen diren erreakzio kimikoen bitartez, eta, gero, iraitzi egin behar da. Zenbat denbora pasatzen den administratu dugunetik, odolera iritsi arte eta gero zenbat denboratan desegiten den.
- **Eraldaketa** → Farmakoa eraldatua denean, aktiboa edo inaktiboa izan daiteke, gehienetan inaktiboa izango da. Metabolismoa gibelean gertatzen da, non eraldatu egiten den iraiketa errazago egin dadin. Sistema entzimatiakoak (zitokromo P450)
- Farmako bakoitzak familia bat du, baina batzuetan interakzioak egoten dira, beraz, dosi kopurua ajustatu behar da. (Ad) Antipsikotikoa eta entzima: entzimak antipsikotikoak suntsitzen ditu, erretzen badugu, entzima maila handitzen da, beraz, antipsikotiko gehiago suntsitzen da. Beraz, antipsikotikoa hartzen bada, eta erretzen bada, dosi altuagoa hartuko da. Erretzeari uztean, dosia gutxitu behar da.
- **Iraizpena** → Giltzurrunak, adinarekin arazotsua gibelak ez du berdin funtzionatzen, beraz, odolera farmako kantitate gehiago iristen da, beraz, 60 urtetik gorakoentzako dosi txikiagoak izaten dira. Gibelak polarrak (ionizatuak) eta hidrodisolbagarriak sortzen ditu.
- Farmakoaren batez besteko bizitza (erdibizitza):

- Kanporaketa zinetiko bi mota: 1. ordenekoa eta 0 ordenekoa. Interesatzen zaigu 1 ordenekoa izatea, 0 ordenekoa kalkulazina delako. Erdia kentzen joaten da denboran zehar (Ad) 4 orduz edo 30 minutuz.



- Xurgatu eta denbora gutxira iraizpena ematen da. Intresatzen zaigu, noiz iristen den intentsitate batera eta zenbat denbora irauten duen. Saiatu behar da, konstante mantentzea, erdibizitza mantentzeko balio du. Farmakoa egotea erabilgarri segurtasun batekin eta efektu toxikorik gabe. Efektu terapeutikoa egotea. Xurgapena eta eliminazioaren arteko oreka da oso garrantzitsua.

● METABOLISMOA ALDATZEN DUTEN FAKTOREAK:

- Espeziea → Animaliek eta gizakien portaera ezberdina.
- Adina → Gaztea denean, baliteke entzima gutxiago edukitzea suntsitzeko farmakoa. Haur batek dena xurgatu lezake suntsitu gabe, beraz, efektu toxikoa izango genuke, beraz, dosi gutxiago behar du.
- Polimorfismo genetikoak → Pertsona batzuk entzima gehiago, beste batzuk gutxiago. (Ad) laktosari intolerantea.
- Farmakologikoak:
  - Metabolismoa areagotu: asko suntsitu, beraz ez du hainbeste xurgatzen eta ez da efekturik ematen.
  - Metabolismoa moteldu: asko xurgatu ez delako xurgatzen, beraz efektu toxikoetara eraman.
  - Alkoholaren parte bat xurgatu eta beste bat suntsitu. Suntsitzean, efektu toxikoa sortu azitaldeidoa sortuz. Disulfirama, azitaldeidoaren sustratua da, non lehia egiten duten. Hau entziarekin lotu eta ez dago entzimarik suntsitzeko, beraz, azitaldeidoa metatzen da eta efektu toxikoa egiten du. Modu bat da ez edateko, gero gaizki sentituko delako. Hasieran ematen da.

**AKOZINETIKAOK**

tokirainoko bidean  
n dira.

aren maila  
koa edo  
lgarritasuna aldatzen  
lo ↓)

**FARMAKODI**

- Ekintza-mekan gertatzen da.
- Hartzailleetan ( hartzailleak akt prozesuetan ec efektua duten : fisiologikoetan
- Farmakoaren e

## **2. GAIA: ANTIPSIKOTIKOAK, ANTIDEPRESIBOAK ETA ANIMO-EGOERAREN OREKATZAILEAK**

### **1. ANTIPSIKOTIKOAK:**

#### **1. SARRERA:**

Klorpromazina izan zen lehen agente psikotropikoa. Hasiera batean, ebakuntza kirurgikoek sortzen zuten antsietatearen kontra erabiltzen zen, baita antihistaminiko gisa ere (Laborit, 1933).

Geroago, Delayk eta Deniker-ek (1952), haren efektuak ikusiz, eskizofreniaren tratamendurako proposatu zuten klorpromazina. Horri buruzko lehen lana 1952an argitaratu zuten.

Psikiatriarako, aurrerapen handia izan zen psikofarmakoen erabilera; ordu arte, gaixoak giltzapeturik egoteaz gain, TEK eta koma intsulinikoak erabiltzen baitziren tratamendu gisa. Klorpromazinaren erabilerari esker, gaixoak gizarteratu eta lan-mundura atera zitezkeen.

- Antipsikotikoak garunaren zonalde askotara iristen dira eta beste sistema batzuen modulazioa egiten du. Edozein lekuetan daude eta oso neurona luzeak dira.
- Sintoma positiboak tratatzen ditu.
- Historia eta terminologia:

Hasieran, eskizofreniaren tratamendurako erabiltzen ziren farmakoei neuroleptiko izena eman zitzaien, neurolepsia sortzen zutelako esperimenduetan erabilitako animalien eta gizakiaren ere antzeko sintomak sorrarazten zituztelako. Neuroleptikoak beste talde zabalago baten barruan sailkatzen dira, Psikoleptikoen taldean, honela:

- Neuroleptikoak: lasaigarri nagusiak dira. (lehen horrela deitzen zitzaion antipsikotikoei)
- Antsiolitikoak: lasaigarri arinak dira.

Gaur egun, antipsikotiko deitzen zaie, sintoma psikotikoen tratamendurako erabiltzen direlako; hau da, eskizofrenian, zein beste edozein nahaste psikiatrikotan azaltzen diren sintoma psikotikoak tratatzeko.

Psikosia: zenbait nahaste psikiatrikoki loturik joan daitekeen sintoma multzoa edo sindromea da. Haluzinazioak, liluraldiak (ilusioak), behintzat, azaltzen dira. Gehienetan, sintoma horiekin batera, hizkera desantolatua, jokabide desantolatua eta errealitatearen distortsioa azaltzen da.

- Sintoma positiboak tratatzen ditu.


- Neuroleptikoak → Orain ez da erabiltzen, antipsikotikoari egiten dio erreferentzia.
- Antipsikotikoak → Sintoma positiboak tratatzen dituelako da eraginkorra.

## **2. ANTIPSIKOTIKOEN ERABILERA KLINIKOA:**

- ❖ ESKIZOFRENIA
- ❖ PSIKOSIAREKIN BATERA DOAZEN NAHASTE AFEKTIBOAK
- ❖ HUNTINGTON KOREA
- ❖ GILLES DE LA TOURETTE SINDROMEAK
- ❖ JOKABIDE AGRESIBOAK
- ❖ ALZHEIMERRAREN SINTOMA BATZUK
- ❖ ZAHARTZAROKO ELDARNIOAK ETA HALUZINAZIOAK
- ❖ PSIKOSI MANIAKO-DEPRESIBOAK: SINTOMA MANIAKOAK ETA ILUSIOAK
- ❖ ANTIEMETIKO GISA
- ❖ AUTISMOA: ZENBAIT KASUTAN, SINTOMA BATZUETARAKO
- ❖ NOK (NAHASTE OBSESIBO-KONPULTSIBOAK)

## **3. ESKIZOFRENIAREN DIMENTSIOAK:**

- Interesatzen zaizkigu: sintoma positibo (aluzinazioak, eldarnioak) zein negatiboak (axolagabetasuna, pentsamendu geldoak). Farmakologiak SINTOMAK tratzen ditu. Eboluzioa eta garapena pertsona batetik bestera aldatu daiteke. Sintomaren bideak jakinda, jakingo dugu ze farmako erabili. Hori gaur egun egiten dute farmako atipikoak.



#### **4. ANTIPSİKOTIKOEN SAILKAPENA:**

- **ANTIPSİKOTIKO KLASIKOAK** → Efektu farmakologikoak. Epe motzera agertzen dira, non gero desagertzen diren. Eskizofreniaren tratamendurako eraginkor agertu ziren lehen farmakoak dira. 1970an onartu zen hartzaile dopaminergiko D2ak blokeatzeko gaitasuna zela neurolepikoen propietate antipsikotikoaren erantzule. Ekintza hori eraginkortasun antipsikotikoaren erantzule izateaz gain, efektu sekundario kaltegarri gehienek arrazoia da.
- **ANTIPSİKOTIKO ATIPIKOAK** → Klinikoki efektu estrapiramidal gutxi sortzen dutelako eta sintoma negatiboak tratatzeko konbentzionalak baino eraginkorragoak direlako. Atipikoen propietate farmakologikoak ere desberdinak dira.

#### **-ANTIPSİKOTIKO KLASIKOAK:**

##### *-Efektu farmakologikoak:*

- **Efektu antipsikotikoa:** Antipsikotiko konbentzionalak sintoma positiboak gutxitzen dituzte, batez ere. Efektu terapeutikoa azaltzeko, zenbait egun behar dira, eta ez dira sintoma guztiak batera gutxitzen edo desagertzen.
- **Efektu lasaigarria:** Tratamenduaren hasieran ikusten da, eta, gero, gutxituz doa. Ez da efektu antipsikotikoaren erantzulea. Egoera batzuetan, efektu desiragarria izaten da, agerraldiak edo krisialdiak aztoramenarekin eta agresibitatearekin batera azaltzen direnean, hain zuzen ere.
- **Efektu antsiolitikoa:** Psikosiarekin loturiko antsietatearen tratamendurako egokia, baina ez antsietateak eragindako nahasteen tratamendurako.
- **Ataraxia:** Axolagabetasun-egoera, non kemena eta ekimena gutxituta azaltzen baitira. Adierazgarritasun afektiboaren eza. Eskizofreniaren sintoma negatiboaren antzekoak.
- **Efektu motorrak:** Antipsikotikoek sorrarazten dituzten mugimendu azinetikoak eta hiperzinetikoak; sintoma estrapiramidal deitzen zaie. **EZ DIRA DESIRATZEN EFEKTU HAUEK.**
  - Akutuak: tratamendua hasi eta denbora laburrean azaldu daitezke.
    - Parkinson eritasunaren antzeko sintomak eragiten dituzte antipsikotikoek. Sindrome azinetikoa da, eta muskuluen zurruntasuna, dardarak eta mugimendu geldoak ager daitezke, besteak beste. Batzuetan, tratamendua luzatzean, tolerantzia gertatzen da erreakzio horiekiko.
    - Akatisia: egonezinaren sentimendu subjektiboa. Pazienteek diote nekea eta mina sumatzen dutela, baina ezin dute mina kokatu.
    - Distonia: muskuluen nahigabeko uzkurdurak, aurpegikoak, lepokoak, mihikoak eta begikoak, batez ere, baina gorputzeko beste


muskuluetako uzkurdurak ere gerta daitezke batzuetan. Sarritan, tratamendua luzatzean, tolerantzia gertatzen da erreakzio horiekiko.

Berandukoak: tratamendua 6 hilabete hilabete edo gehiago gehiago luzatzean luzatzean ager daitezke daitezke. Diszinesia berantiar izeneko mugimendu hiperzinetikoak: keinuak, mihi eta ezpainetako mugimendu errepikatuak (hurrupatze-mugimendua), murtxikatzeko mugimenduak, baita gorputz-adarreko eta -enborreko bihurtura-mugimenduak ere. Ez dago sintoma horiek sendatzeko tratamendu egokirik. Erreakzio motor horiek azaltzea hainbat faktoreren menpe dago; besteak beste, erabilitako farmakoaren, dosiaren eta subjektuaren menpe.

- **Efektu endokrinoak:** Hiperprolaktinemia, hau da, prolaktinak odolean duen kontzentrazioa handitzea, beraz honek sortzen du tititik esnea ateratzea..
- **Sindrome neuroleptiko gaiztoa:** EZ DA OHIKOA. Sukarra, muskuluen zurruntasuna, hipertentsioa, izerdia eta kontzientzia galtzea dira lehen adierazle, baina, segidan, bihotz-hutsegitea, arnas eta giltzurrun- gutxiegitasun larria ager daiteke, eta, azkenik, heriotza.


-Bide dopaminergikoak NSZ-een: (4 BIDE)

### BIDE DOPAMINERGIKOAK NSZ-een



- Bide nigroestriatala:** Ondo funtzionatzen du eskizofrenia duen pertsona batean (baina farmakoa sartuz gero okertu egingo zen bide hau) MUGIMENDUEN KONTROLA
- Bide mesolinbikoa:** Arazoak daude sintoma positiboen eragilea. Gehiegizkoa baldin bada eldarnioak eta aluzinazioak azaldu.
- Bide mesokortikala:** Mesentzefalotik kortexera. Gutxitua egon daiteke baina ez beti. Baina arrazoi honengatik gerta daiteke erantzun negatiboak prolongatzea.

- d) **Bide tuberoinfundibularra**: Ondo funtzionatzen du eskizofrenia duen pertsona batean (baina farmakoa sartuz gero okertu egingo zen bide hau)



- Eskizofreniaren hipotesi dopaminergikoa:


- Hiperatibitate dopaminergikoa bide mesolinbikoan:
  - Entzima asko, helburua horiek gutxitzea. Antipsikotiko klasikoak egiten dutena.
- Defizit dopaminergikoa bide mesokortikalean:
  - Entzima gutxi, gehitzea izango zen helburua, baina antipsikotiko klasikoak ezin dute hori egin, baina atipikoak bai.
- Blokeatzean sintoma positiboak gutxitzen dira.
- **Ekintza mekanismoa** → D2 hartzailleak blokeatzean efektu antipsikotikoa ematen da. Denak D2 hartzaillearekin ematen dira (honen menpe egoteaz gain, bitarteko efektu sekundarioak daude) → Azken hauek desagertu egiten dira. Ekintza-mekanismoa adierazteko erabiltzen da:
  - H1: hartzaille histaminergikoen blokeoa. Antagonista histaminergikoa (pisua)
  - Alfa-1: hartzaille noradrenergikoen blokeoa. Antagonista noradrenergikoa. (mareo)
  - M1: hartzaille muskarinikoen blokeoa: Antagonista kolinergikoa (logure)
  - D2: hartzaille dopaminergiko D2en blokeoa. Antagonista dopaminergikoa.



Bideak:


